Bestelako Xedapenak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

124

EBAZPENA, 2010eko azaroaren 30ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena. Ebazpen honen bidez, baimendu egiten da 339.639,98 euro gehitzea Lanbide Heziketako heziketa-zikloetan lantokiko prestakuntzako (LP) lanbide-modulua egiteko deialdiko 1.999.578 euroko zenbateko osoari, onartzen diren dirulaguntzak finantzatu ahal izan daitezen.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren Lanbide Heziketako heziketa-zikloetan lantokiko prestakuntzako (LP) lanbide-modulua egiteko dirulaguntzetarako deialdia egiten duen Aginduak (urriaren 6ko EHAA) bere seigarren artikuluan zehazten du deialdia finantzatzeko 1.999.578 euro bideratuko direla.

Lanbide Heziketako Heziketa Zikloen baitan Lantokiko Prestakuntza Modulua egiteko modua arautzen duen uztailaren 8ko 156/2003 Dekretuak (uztailaren 24ko EHAA) bere 25.1 artikuluan zehazten du aurrekontu-ekitaldi bakoitzean emango diren laguntzen bolumenak ez duela gainditukо egindako esleipenaren bolumena edo esleipen eguneratuaren bolumena, beti ere indarrean dagoen legeria errespetatuz aurrekontuko aldaketak onartzen badira. Halaber, zehazten du hori guztia Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeak emandako ebazpenaren bidez jakinaraziko dela.

Lanbide Heziketako heziketa-zikloetan lantokiko prestakuntzako (LP) lanbide-modulua egiteko dirulaguntzetarako deialdiaren ebazpenak berekin dakartzan behar ekonomikoak ikusita eta uztailaren 8ko 156/2003 Dekretuaren 25.1 artikulua bete dadin, hauxe

EBATZI DUT:

Lanbide Heziketako heziketa-zikloetan lantokiko prestakuntzako (LP) lanbide-modulua egiteko dirulaguntzetarako deialdia finantzatzeko dagoen 1.999.578 euroko zenbateko osoari 339.639,98 euro gehitzeko baimena ematea.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko azaroaren 30a.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea,
MARÍA SOLEDAD ESTEBAN GALARZA.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

124

RESOLUCIÓN de 30 de noviembre de 2010, de la Viceconsejera de Administración y Servicios del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, por la que se autoriza un incremento de 339.639,98 euros al importe total de 1.999.578 euros destinados a la financiación de las ayudas a conceder por la resolución de la convocatoria de ayudas por la realización del módulo de formación en centro de trabajo (FCT) en los ciclos formativos de la Formación Profesional.

La Orden de 2 de septiembre de 2010 (BOPV de 6 de octubre), de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se convocan ayudas por la realización del módulo formación en centro de trabajo (FCT) en los ciclos formativos de la Formación Profesional dispone en su artículo sexto que a la financiación de dicha convocatoria se destina la cantidad de 1.999.578 euros.

El Decreto 156/2003 de 8 de julio (BOPV de 24 de julio), por el qué ese regula la realización del módulo de formación en centro de trabajo (FCT) en los Ciclos Formativos de Formación Profesional establece en su artículo 25.1 que el volumen total de las ayudas a conceder dentro de un ejercicio presupuestario no superará la consignación establecida al efecto en los presupuestos generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi o la que resulte de su actualización, en el caso de que se aprueben modificaciones presupuestarias de conformidad con la legislación vigente. Añadiendo que de tal circunstancia se dará publicidad mediante Resolución de la Viceconsejera de Administración y Servicios.

Vistas las necesidades económicas que genera la resolución de la citada convocatoria de ayudas por la realización del módulo de formación en centro de trabajo (FCT) de en los ciclos formativos de la Formación Profesional y en cumplimiento del mencionado artículo 25.1 del Decreto 156/2003 de 8 de julio.

RESUELVO:

Autorizar un incremento de 339.639,98 euros al importe total de 1.999.578 euros destinados a la financiación de la convocatoria de ayudas por la realización del módulo formación en centro de trabajo (FCT) en los ciclos formativos de la Formación Profesional.

En Vitoria-Gasteiz, a 30 de noviembre de 2010.

La Viceconsejera de Administración y Servicios,
MARÍA SOLEDAD ESTEBAN GALARZA.